

Izen-abizenak:	Irakaslea:
----------------	------------

B1 mailako proba idatzia

Probaren atalak:

Irakurriaren ulermena	puntuak	osotara	Gutxieneko puntuazioa
A.- Eguneko otorduak	8	20.5	12
B.- Bizikletak trenean	8		
C.- Aire egokitua	4.5		
Idazmena			
D.- Eskutitza	5	20	10
E.- Narrazioa	15		
Entzunaren ulermena			
F.- 72 urteko erretiratua	10	20	12
G.- Amazonas	10		
Baliabide linguistikoak			
H.-Gramatika	5	10	-
I.- Lexikoa	5		

Proba idatzi osoa		70.5 puntu	35 puntu
-------------------	--	------------	----------

Proba osoa egiteko 150 minutu (2ordu eta erdi) izanen dituzu.
Proba hasi eta ordu erdi beranduago entzunaren ulermena egingo dugu.

Irakurriaren ulermena

A. ariketa

Irakur ezazu ondoko testu hau. Hurrengo orrialdean testuaren inguruko galdera batzuei erantzun beharko diezu.

Eguneko otorduak Hiru otordutik batek ez du kalitate dietetikoaren proba gainditu

Estatu Espainolean gaur egun ere ohikoena (hamar familiatik seitan hala gertatzen da) etxean eguerdian gurasoek eta seme-alabak elkarrekin bazkaltzea bada ere, joera hori beste aldera doa: gero eta maizago bazkaltzen du jendeak etxetik kanpo. Eroski Fundazioaren 2004 urteko Kontsumo Barometroak adierazten zuenez familien %20tan aitak etxetik kanpo bazkaldu ohi du astegunetan, familien %7tan ama da kanpoan bazkaltzen duena eta %16tan, berriz, seme-alaba bat edo gehiago. Egunero-egunero enpresa zein eskolako jantoki eta ostatuek etxera joatea ezinezkoa duten milioika hiritarri ematen diote jaten.

CONSUMER EROSKI-k, Espainiako jatetxeek ematen duten zerbitzuaren kalitatea eta, batez ere, tokian tokiko eguneko otordua (hauxe baita etxetik kanpo bazkaltzen duten pertsona gehienek hautatzen duten aukera) osatzen duten jangaiak aztertzeke helburuz, bertako teknikariak 18 hiritako erdigunean kokatuak dauden 318 jatetxetara igorri zituen: A Coruña, Alacant, Almeria, Bartzelona, Bilbo, Kordoba, Granada, Madril, Malaga, Murtzia, Oviedo, Iruñea, Donostia, Sevilla, Valencia, Valladolid, Gasteiz eta Zaragozan hain zuzen.



Aldizkari honetako teknikariek 318 jatetxe horietako bakoitzean mahaia eskatu zuten eta eguneko otorduek ematen dituzten aukeretatik bat hautatu, zerbitzatu zitzaizkien janariak hartu, ordaindu eta, azkenean erreklamazio orriak eskatu zituzten, (establezimenduek nahi duenaren esku ba ote zituzten jakiteko bakar-bakarrik).

Zenbait ondorio

- Eguneke otorduen %30ek kalitate dietetikoaren proba gainditu gabe utzi dute .
- Hainbat jatetxetan nahi duenak ez du erreklamazio orririk eskura, hori derrigorrezkoa den arren eta eguneko otorduen prezioek agerian egon behar badute ere, jatetxeen %14tan ez zeuden agerian.
- Eguneke otorduen prezioetan alde biziak daude, 2001 urtean baino %15 garestiago.

- ...

Iturria : **CONSUMER ALDIZKARIA** (erreportajearen zati bat)

Aukera ezazu ongi dagoen erantzuna: (erantzunak beheko laukietan)

- 1.-Zenbat otorduk betetzen du kalitate dietetikoaren proba?
 - a.- Batek.
 - b.- Bik.
 - c.- Hirurek.

- 2.- Zer da ohikoena ?
 - a.- Bazkal orduan seme alabak eta gurasoak elkarrekin izatea.
 - b.- Bazkal orduan gurasoek seme alabak bazkaltzea.
 - c.- Bazkal orduan nork bere aldetik mokadu bat hartzea.

- 3.- Hala ere...
 - a.- Gero eta jende gutxiagok bazkaltzen du etxetik kanpo.
 - b.- Gero eta jende gehiagok bazkaltzen du etxea ez den beste nonbait.
 - c.- Gero eta jende gehiagok eramaten du bazkaria lantokira.

- 4.- Consumerrekoek...
 - a.- Langileen tabernetako janaria aztertu zuten.
 - b.- Lantegi ondoko tabernetako zerbitzua aztertu zuten.
 - c.- Hainbat hiritako tabernetako janaria aztertu zuten.

- 5.- Aztertu zuten...
 - a.- Bereziki langileek gehien aukeratzen duten otordu mota.
 - b.- Bakarrik aholkatutako eguneko otordua (menua).
 - c.- Langileek gehien aukeratzen dituzten platerak.

- 6.- Aldizkariko teknikariak...
 - a.- Menuko plater guztiak aukeratu zituzten, eta jan egin zituzten.
 - b.- Menu arrunta aukeratu eta jan egin zuten.
 - c.- Pertsona bakoitzak plater ezberdina eskatu zuen, gero konparatzeko.

- 7.- Aldizkariko teknikariak...
 - a.- Ez ziren kontent gelditu eskatutakoarekin eta erreklamazio orriak eskatu zituzten.
 - b.- Eskuragarri ote ziren ikusteko erreklamazio orriak eskatu zituzten.
 - c.- Bazkaldu eta berehala, ordaindu aurretik erreklamazio orriak ikusi nahi izan zituzten.

- 8.- Zein ondorio ez da egia?
 - a.- Ia-ia heren batek ez du proba dietetikoa gainditu.
 - b.- Jatetxe batzuk beste batzuk baino dezente garestiagoak dira.
 - c.- Jatetxe guztietan prezioak ongi ikusten ziren.

1	2	3	4	5	6	7	8

Erantzunak lauki hauetan

Irakurriaren ulermena

B. ariketa

Irakur ezazu ondoko testu hau testuaren inguruko galdera batzuei erantzun beharko baitiezu.

Bizikletak trenean

Europako parlamentuak trenetan bizikleten garraioa bultzatu nahi du. Ni neu, noizbait trenean bizikleta erabiltzea pentsatu dudan arren, trenean horrelako "katxarroa" sartzeak atzera botatzen nau...

Infovias Verdes-en irakurri dut Europako parlamentuak tren eta bizikletaren erabilera bultzatu nahian, ebazpen bat kaleratu duela.

Badira bi hilabete, hamar urteko kotxe erabilera alde batera utzi eta lantokirako bidaia trenez egiten dudala. Etxetik tren geltokira kotxez egiten ditut bi kilometro inguru eta helmugatik lantokirako 3 kilometroak autobusez egiten ditut.

Hilabete pare batean lauzpabost liburu irakurri ditut, bidai kostua laurdenera jaitsi dut, gidatzeak sortzen didan goizeko estres puntu hori atzean utzi eta lanetik orduan ateratzeko aitzaki paregabea dut orain. Denak bere prezioa du, kasu honetan goizeko seietan jaiki beharra....

Noizbait bizikleta erabiltzea pentsatu dudan arren, trenean horrelako "katxarroa" sartzeak atzera botatzen nau. Posible ikusten al duzue bizikletaren erabilpena? Ba al da zuen artean lanera bizikletan joaten den zororik? Noizko bidegorri bat Elgoibarren?

Esan egia/gezurra diren ondorengo baieztapen hauek:

	Egia	gezurra
1.- Europako Parlamentuak egindako kanpaina zahar batek ideia batzuk ekarri dizkio burura testua idatzi duenari		
2.- Ideia ona dela pentsatzen du. Bera bizikleta erabiltzen hasiko da.		
3.- Trenez joateak onura pertsonalak ditu.		
4.- Alde txarrik ere badu trenaren erabilerak.		
5.- Orain merkeago ateratzen zaio lanera joatea		
6.- Ordutegiak garrantzi handiagoa hartu du orain		
7.- Gauzak dauden bezala oso erraza da bizikletaren erabilpena bultzatzea.		
8.- Elgoibarko bidegorria egin berria da.		

Irakurriaren ulermena

C. ariketa

Aire egokitua

Beroa handia denean...



Jarraian dituzun testu zatiak irakurri ondoren, **ordena itzazu**

A Izan ere, aire egokituko aparatuak udako izar bilakatu dira. Uda parteko beroak etortzean, aparatu horiek bete-betean ari dira martxan eta gelako bero sapa freskotasun atsegina bihurtzen digute. Orain dela sei mila urteko siriarrak ezaguna bazuten ere, aire egokituaren erabilera masiboak mende bat baizik ez du.

B Kontsumoa Levante, Murtzia eta Madrilen biderkatu da gehien. Erositako hamar aparatutik bederatzik kalefakzioa ere badaukate (“beroponpa”) eta aparatu horien erdien prezioa 600 eurotik behera dabil.

C Klimatizazioaren industriak Espainian 1.400 milioi eurotik gora eragiten ditu eta ia milioi bat etxerako ekipoa saltzen du urtero, uda garaian bereziki.

D Eta joerak goraka segitzen du: azken bi urteotan Espainiak nozitu dituen tenperatura handien ondorioz, horrelako aparatuen salmenta izugarri ugaldu da; esate baterako, 2004an klimatizazio eta aire egokituko aparatuen fabrikatzaileek 1.472 milioi eurotik gora fakturatu zuten eta, 2003ko uztailean, klimatizagailu bat instalatzeko itxaronaldia sei astebetekoa ere izan zen.

E Etxebizitzako tenperatura egokiaz ari garela, espezialetzek diotenez, baldintza klimatikoetara gorputzak egokitzeko duen gaitasuna eta sasoi beroetan arropa arinagoa janzten dugula gogoan izaki, 21 eta 25 gradu bitarteko tenperatura aski da etxean eroso sentitzeko.

F Nahiz eta muturreko tenperaturetara lurralde askotan iristen diren, Espainian 620.000 etxebizitza (guztirako kopuruaren %6) baino gehiagok zeukan 1990 urtean freskatzeko sistemarik. Proportzio hori hamar urtean hiruz biderkatu da: 2001ean, Espainiako Estatistikako Institutu nazionalaren arabera, ohiko bizitokitzat baliatzen ziren 2,2 milioi etxebizitzak zuten aire egokitua.

1.	2.	3.	4.	5.	6.
C					

Erantzunak lauki hauetan

idazmena

D. ariketa
E. ariketa

1. Egitekoa / D. ariketa

Espero zenuen lagun baten mezua jaso duzu. Laguna Iparraldekoa da. Zurekin euskara ikasten aritu zen iaz barnetegi batean eta zure ezkontzara etorriko da. Pasa den astean hasi zinen gonbidapenak bidaltzen eta lehenengo erantzunak ailegatzen hasiak dira.

Berak mezu hau bidali dizu:

ZORIONAK POLIT HORI ! :

Azkenean iritsi zaizu garaia. Mila esker gonbidatzeagatik. Zure ondoan izanen naiz egun seinalatu horretan. Aitortu behar dut biziki harritu nauela zure mezuak. Pasa den udan San Ferminetara joan nintzenean ez zenidan deus erran. Noiz eta non ezagutu zenuten elkar? Ezagutzeko gogo handia dut. Nolakoa da? ... eta ezkontzaz ari garela, zer egitea pentsatu duzue? Ospakizun serioa izanen da edo lagunaren arteko ospakizun xumea? Faborez, erantzun ahalik eta lehen.

Musu handi bat.

Oier.

Idatzi bere mezuari erantzuna. Noiz ezagutu zenuten elkar, nolakoa den, noiz, non eta nolakoa izanen den ezkontza, nola zauden...

Gutuna (edo mezu elektronikoa) idatzi

80 hitz inguruko gutuna egin behar duzu.

2. Egitekoa / E. ariketa

Auzoko aldizkarian umeen irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina bat egiten ari dira. Jendeak ipuinak bidaltzen ditu (betikoak, asmatuak, modernoak, itzulpenak ...) . Zuri ipuin bat bidaltzea bururatu zaizu.

Idatz ezazu aldizkarian agertzeko moduan . Ongi zaindu hasiera, pertsonaia eta lekuen deskribapena, eta ipuinaren bukaera.

Gutxienez 130 hitzetako idazlana egin behar duzu

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula.
- Idazteko boligrafoa erabili.

B1 mailako proba idatzia. ZUBIARTE EUSKALTEGIA

- Probaren bukaeran orri zuriak dituzu borradore moduan egin ahal izateko. Hor dagoena ez dugu kontuan hartuko. Bakarrik baloratuko da 7. 8. eta 9. orrialdeetan idatzita dagoena.

idazmena

D. ariketa

Idatzi hemen

idazmena

E. ariketa

Idatzi hemen

idazmena

E. ariketa

Idatzi hemen

Entzunaren ulermena

F. ariketa

Entzunaren ulermen orokorra

72 URTEKO ERRETIRATUA ([DB-05366](#))

“ 72 URTEKO ERRETIRATUA “ entzungaia adituko dugu segituan .

Hasi baino lehen hiru minutuko tarte izanen duzu behean agertzen diren esaldiak irakurtzeko. **Bi aldiz** entzungo dugu.

Entzun bitartean edo ondoren, aukeratu **A, B, ala C**, beti ere irratsaio honetan esaten dutenaren arabera. Erantzunak beheko laukietan idatzi.

- 1.- Zenbat aldiz ezkondu da Malasiako gizon hau ?
 - a) berrogeita hamahiru
 - b) hamaika
 - c) berrogeita hiru
- 2.- Zer ez zaio gustatzen gure protagonistari ?
 - a) Emakume politak
 - b) Abenturak
 - c) Ezkontzak
- 3.- Norekin ezkondu nahi du erretiratu honek ?
 - a) Lehengo aldiz emakume batekin
 - b) Bere alargunarekin
 - c) Lehenengo emaztearekin
- 4.- Neska bat gustukoa izan duenean zer egiten du gizonak ?
 - a) Ezkontzea eskatu
 - b) Polita dela esan
 - c) Ezkonduta dagoen galdetu.
- 5.- Zer ez du gustuko jubilatuta honek, aldi berean ?
 - a) Lau emakumerekin ezkonduta egotea
 - b) Emakume bakar batekin ezkonduta egotea
 - c) Bi emakumerekin ezkonduta izatea

1.	2.	3.	4.	5.

Erantzunak lauki hauetan

Entzunaren ulermena

G. ariketa

G. Entzunaren ulermen zehatza: AMAZONAS

Izen hori duen entzungaia adituko dugu segituan . [\(DB- 01231 \)](#)

Hasi baino lehen hiru minutuko tarte izanen duzu behean agertzen diren esaldiak irakurtzeko. **Bi aldiz** entzungo dugu.

Entzun bitartean esan esaldiak egia diren (**BAI**) ala gezurra (**EZ**) **X** bat jarritz.

		BAI	EZ
1	Irratikoek diotenez Amazonas da munduko ibairik sakonena.		
2	Amazonasen iturburua orain aurkitu dute eta hain zuzen ere Andeetan dago.		
3	Amazonas, misterio handia zen bere sorlekua non zen ez genekielako.		
4	Amazonia, misterio handia ere bada, espezie asko sailkatu gabeak deskubritzen ari direlako.		
5	Bi milioi intsektu, 600 ugaztun, 600 mila landare, eta 200 arrain espezie ezberdin dago sailkatu gabe Amazonian.		
6	Ez dugu behar bezala Amazonia zaindu, interes ekonomikoengatik.		
7	National Geographic-eko ikerketa taldeak, espedizio honetan, bazuen hasiera batean programatuta helburu ekologikorik ?		
8	Amazonian, burdina, urre eta petrolio, kantitate handietan aurkitu dira.		
9	Medikus Mundi taldekoek esan dutenez 20.000 biztanle baino gehiago petrolioren gasen ondorioz kutsatuta daude.		
10	Bi urtetan, lau bidaia egin ondoren eta informazio sare bat antolatu ondoren aurkitu dute azkenean Amazonasen sorlekua Nevado del Mismis-en.		

Baliabide linguistikoak**H. ariketa**

Ondorengo pasarte eta esaldietako hutsuneetan hitz egokia aurkitu behar duzu, horretarako behean agertzen den aukeretako bat hautatu beharko duzu.

AKABO ESKOLAKO LO-KULUXKAK!

Bizitzako arlo guztiak aldatu ____(1)_____, hezkuntza-eskaintza ere berriro eta zabaldu egin du gizarte modernoak, eta erosoago eta errazago bihurtu ditu. Bukatu dira eskolako eta unibertsitateko lo-kuluxkak! Urrutiko ____(2)_____, edozein momentutan eta edozein lekutan egin ditzakezu ____(3)____ ikasketak.

Irakasleak aurrean izan gabe, ikasketak etxetik ____(4)_____ da urrutiko ikasketen ezaugarri nagusia. Ikasketak egituratu, zuzendu eta ebaluatzeko erabiltzen diren materialen artean, posta elektronikoa, posta arrunta, telefonoa, bideo zintak, txata, berehalako mezularitza zerbitzua, web kamera, eta era guztietako informatika-baliabideak ____(5)_____. Zenbait ____(6)____, zerbitzu horiek ____(7)____, saio batzuk egin behar izaten dituzte ikasleek irakasleak "aurrean" dituztela, haien ikasketaprozesua bide onetik ____(8)____ ziurtatzeko.

Zure ametsa ikasgelarik gabeko eskola izatea baldin bada, interesgarri ____(9)_____ orain ____(10)_____ aukera hau.. Hona hemen urrutiko ikasketen arloan eskaintzen diren master, unibertsitate-ikasketa, lanbide-heziketako ikasketa, eta bestelako ikastaro guztien lagin ("muestra") bat.

1	a) dituen moduan	b) badituela ere	c) dituenaren antzera	
2	a) ikasketak eskerrak	b) ikasketen araberakoa	c) ikasketei esker	
3	a) zuretzat	b) zeure	c) zurendako	
4	a) egin ahal izatea	b) egin ahala	c) egiteko	
5	a) aurkituko dezakegu	b) aurkitzen ditzakegu	c) aurki ditzakegu	
6	a) kasuretan	b) kasuetan	c) kasutan	
7	a) erabiliz	b) erabiltzen	c) erabiltzeraino	
8	a) doala	b) doanik	c) doanetan	
9	a) gertatu ahal zaizu	b) gertatuko ahalko zaizu	c) gerta ahal zitzazun	
10	a) aurkeztu izan dizugun	b) aurkezten ari garen	c) aurkezten aritu garen	

A? B? C?**Idatzi hemen aukera egokia** 

Baliabide linguistikoak

I. ariketa

Bete itzazu hutsuneak beheko hitzetatik egokiena aukeratu ondoren

- 1.- Zapatak egiten dituen enpresa batek 25.000 zapata pare bota behar izan ditu, oinez egiterakoan _____ antzeko soinua egiten zutelako.
- 2.- Espainiako Marbella hiriko bi polizia atxilotu dituzte, lanean ari zirela, etxetresna elektrikoen denda batean _____ egiteagatik.
- 3.- Txokolatea munduan gehien zabaldu den gutizia (“antojo, capricho”) gastronomikoa izango da, _____
- 4.- Eta zu, isilduko al zara , _____ , ezertxo ere ez dakizun horrek?
- 5.- Euskal Herriko campusak ez dira film amerikarretan ikusten ditugun horiek _____
- 6.- Ez dut _____ atsegin hemen jartzen duten musika; gaur egun musika heavy gutxi jartzen dute.
- 7.- Mendiaz gozatzeko eguraldi ona, mendirako koadrila ona behar ditut, ahalik eta ongien __ (17) _____ saiatu behar dugu.
- 8.- Asko aldatzen ari da gure artean komunikatzeko modua. Orain dela urte batzuk, norbaitek ia denok mugikorra erabiliiko genukeela _____ , _____
- 9.- Erabat _____ zabiliza hegaztien gripea dela-eta. Nola liteke hain hipokondriakoa izatea?
- 10.- Floridako legebiltzarrak kalean tiro egitea baimentzen duen legea onartu du. Hemendik aurrera, bere burua arriskuan ikusten duen _____ tiro egin ahal izango du, inori azalpenik eman behar izan gabe.

Idatz ezazu eskuineko zutabeen aukera egokia

1.	a) puzkarren	b) ipurterren	c) puzkorren	
2.	a) lapurbide	b) lapurreta	c) lapurgintza	
3.	a) jakintza	b) noski	c) jakinda	
4.	a) baldar hori	b) ergel hori	c) kontakizun hori	
5.	a) bezala	b) berekoak	c) bezalakoak	
6.	a) guzti	b) batere	c) ezerrez	
7.	a) pasatzen	b) pasatzeko	c) pasatzea	
8.	a) - esan izan baligu, ez genion sinetsiko	b) - esango baligu, ez geniokeen sinetsiko	c) - esan baliguke, ez genioke sinetsiko	
9.	a) lasaituta	b) kezkatuta	c) matxinatuta	
10.	a) edonori	b) edonorentzako	c) edonork	

A? B? C?

Idatzi hemen aukera egokia ↗